

## DURANGOKO AZOKA

Unitate honen azken helburua Durangoko Azokaren bilakaera ezagutu eta sorreratik gaur egun arte eman diren aldaketez jabetzea izango da. Ibilbide hau egiteko azken xede moduan Azokako kartelaren diseinua eta etorkizuneko azoka irudikatzea proposatzen ditugu. Azken xede hau egiteko jarduera ezberdinak egingo dituzue unitatean zehar. Berauek azken proiektua egin ahal izateko baliabideak izango dira. Goazen ba jardueraz jarduera.

### Azoka txikia

Atal hau unitate guztietan edukiko dugu. Bertan, gaiari lotutako materiala etxetik ekarri eta eskolan/ikastolan erakusgai jarriko dugu, ahal baldin bada jendeak ikusteko lekuan (sarreran, pasilloan, ...) Honekin eskola komunitateak zertan ari garen jakingo du zertan ari garen.

Materiala ekartzen dutenean zer eta zergatik ekarri duten azaltzea izan daiteke ariketa posible bat. Ikasleak ahozkotatuta landuko du horrela.

### Mari eta konpainia (komikia)

Unitate honetako lehen jarduera da, beraz, aurrezagutzak lantzeko erabiliko dugu. Komikiak Azokari buruzko informazioa ematen du. Horrez gain laguntza galdera batzuk proposatzen dira. Inportanteena gaiari buruz hitz egitea eta bakoitzaren bizipenak beste ikasleekin konpartitzea.

Jarduera hau egiteko guztiok elkar entzuteko moduan jarriko gara, borobilean adibidez.

### Hasierako urteak

Proposatzen den ariketa bi kartelen behaketa egitea da. Behaketa honetan kartelak zein informazio ematen digun jarriko dugu arreta eta galderak ere horretara bideratuak daude. Ondoren, karteletatik ateratako informazioa idatziz landuko dugu. Gure proposamena bi kartelen inguruko testu bat egitea da.

### Nork? Zer? Noiz?

#### Nerea Mujika Ulazia

Hurrengo jarduera egiteko elkarrizketa batetik abiatuko gara. Nerea Mujika Ulaziari eginikoa da eta irakurri eta entzuteko moduan daukagu. Bertan Gerediaga Elkarteari buruzko informazioa ematen dugu.

Emandako informazioarekin laburpena egingo dugu. Hona hemen berau egiteko proposatzen dugun hurrenkera:

1. Audioa entzun.

2. Audioaren inguruan ahoz hitz egin.
3. Testua irakurri eta ideia nagusiak atera (5. Orrialdean idatzi)
  - a. Jarduera hau taldeka zein bakarka egin daiteke.
4. Ateratako ideia nagusietatik abiatuta laburpen testu bat sortzea.

Oharra: 5. orrialdean web orri bi eta bazenekien atala daude. Lehena interneten informazioa bilatzeko tresna moduan jarri dugu eta bazenekien atala informazio gehigarri moduan jarri dugu.

### Julene Azpeitia Gomez

Atal honen helburua idazlea eta bere lana ezagutzea izango da. Horretarako testua irakurri eta beheko galderen inguruan hitz egingo dugu gelan. Informazio gehiago behar izanez gero behean agertzen diren loturak erabili ditzakegu.

Jarduera honekin jarraitzeko 7. Orrialdean ekoizpen bat egingo dugu. Bertan Julene Azpeitiaren ipuin batetik abiatuta komiki txiki bat egitea proposatzen dugu.

Atal honetan egin daitekeen beste jarduera bat ipuinaren kontaketa egitea izango da. Irakasleak egin dezake eta baita ikasleek ere. Adibidez, bakoitzak egindako komikia kontatzea.

### Ondorengo urteak

Kartelei helduko diegu berriro atal honetan. 80. hamarkadako 3 kartel azaltzen dira. Atal honen helburua berriro kartelak aztertzea izango da. Horretarako aurreko karteletara egin beharko dugu salto. Izan ere, kartelen arteko konparaketa egiteko eskatzen da. Kartelen azterketa egitean seguru ideia asko eta ezberdinak irtengo direla. Hala ere, guk batzuk emango ditugu laguntzeko eta Osaba Bittorrek ere ematen digu baten bat.

- Lehenak gazteleraz edo elebitan daude (3. Orrialdea) eta besteak euskara hutsean.
- Azken biak diseinu aldetik “modernagoak” dira.
- Herria, data, urtea, Liburu Azoka: denetan agertzen dira.
- Gerediaga Elkartea (antolatzailea) batzuetan bakarrik azaltzen da.
- Zuek aurkituko dituzue gehiago, Animo!!!

Horrez gain Azokaren kokapena ere lantzea garrantzitsua da. Ariketa interesgarria izan daiteke (Internet, etxean galdetu, liburutegia, ...) ikerketa txiki bat egiteko.

## Joseba Sarrionaindia Uribelarrea

Atal honen helburua idazlea eta bere lana ezagutzea izango da. Horretarako testua irakurri eta gelan hitz egingo dugu. Informazio gehiago behar izanez gero behean agertzen diren loturak erabili ditzakegu.

Ondoren Josebaren ipuin bat jarri dugu. Berau irakurri eta amaiera bat asmatzea izango da gure lana. Ikasleen amaiera ezberdinak taldean partekatu ditzakegu.

## Katuen kantua

Atal honetan katuaren esanahi ezberdinekin jolastuko dugu. Gose taldeak musikatutako Josebaren hitzak entzungo ditugu eta gelan katua berbaren esanahiaz hitz egingo dugu gelan.

- Katua: gurpila aldatzeko tresna. Animalia eta pistolaren atala dira azaltzen diren esanahiak.

Atal honetan egin beharreko ekoizpena diskoaren azala izango da. Azala egiteko entzundako kantuaren letra erabiltzea proposatzen dugu.

## Azoka XXI. Mendean

Kartelei helduko diegu berriro atal honetan. XXI. mendeko 3 kartel azaltzen dira. Atal honen helburua berriro kartelak aztertzea izango da. Horretarako aurreko karteletara egin beharko dugu salto eta baita Nerearen elkarrizketara ere. Izan ere, kartelen arteko konparaketa egiteko eskatzen da eta kartel hauek denboran kokatzea ere bai. Kartelen azterketa egitean seguru ideia asko eta ezberdinak irtengo direla.

- 2004an Landako Gunea azaltzen da (gune aldaketa)
- Kartel hauetan edizioa, data eta lekua azaltzen dira. Ez beste ezer.

## Azokaren barruko azokak

Hurrengo atalean azoka barnetik ezagutuko dugu. Horretarako testu bat eta irudi bat ematen dira (mapa bat). Jarduera Azokan dauden gune edo barneko azokak mapan kokatzea izango da. Horrez gain gelan gune ezberdinetan egiten denaren inguruan hitz egingo dugu.

Nahi izanez gero Azoka egunak aprobetxatu daitezke Durangotik txango bat egin eta bertatik bertara ikusteko guneok.

## Nor? Zer? Noiz?

### Leire Bilbao Barruetabeña

Atal honetan Durango bizi den Leire eta Maiteren lan bat aurkezten da. Bideo bat ikusten da nola “collage teknika” erabiltzen den liburu bat egiteko. Lotura behean dago. Ikasleek beraien azken proiektura begira erabili dezakete teknika hau nahi izanez gero.

## Azken ekoizpena

Aurretik landutakoa praktikan jartzeko ordua da. Kartel bat egingo dugu. Gomendioa taldeka egitea da. Ondoren kartel hauekin **erakusketa** bat egitea interesgarria litzateke. Ez ahaztu kartela **Gerediaga Elkartera bidaltzea**. Kartela bera erabili dezakegu etorkizuneko Azoka irudikatzeko.

Kartela bukatutakoan talde bakoitzak kartelaren nondik norakoak azaltzea ere beste aukera bat da. Zer esan nahi duten, zein teknika aukeratu duten, zenbat kostatu zaien, ....

## Zer ikasi dut?

Atal denetan azaltzen dira ebaluazio galdera hauek. Ebaluazioa atal ezberdinetan banatuta dago. Alde batetik, beraien ikasitakoa azaltzen da. Bestetik, taldean edo taldekideengandik ikasitakoa eta azkenik, materiala edo unitatearen ebaluazioa. Ahoz zein idatziz egin daiteke.